

II

Beien, Belentxo,
zein samurra dan
zure Semetxo!

Goiz-mosua euzkiak
aiña gori lerden,
Goiko Jauna berbera
dauskuzu eskintzen.

Ta zugan Jauna ikusiz,
biotza yat urtu,
goi-Aberri miñetan
nasaiki gozatu.

III

Beien, Belentxo,
zein pitxia dan
zure Semetxo!

Len ezeuki ba'ziñan,
aberats oingcan:
zeru-lurren Jaubea
zuk dozu altzoan.

Ene Beien, Belentxo,
zein jori zarean!
Zeugandu naizu ni be,
poz-izpi betean.

JAINKO TA GIZON

Mendi sakoska zear, asperen ta oiu,
lur atsegin artean ibillia nozu.

Lur lokiak etenik emen naukazu gaur
Zuri maite erruki eskatzen, ene Aur!

Galtzu ori gaiñean zaukadaz otzetan,
neure biotzetiko maitasun irrikan.

Jainko dirdira dozu giza-jantziz gorde,
nire arima osoz izan daiten zeure.

Aingeruak egazka dabiltz zerupean,
lekuko zintzo jzanik bion alkartzean.

Beioa urrun igesi biotzaren otza,
eta bego irripartsu pozaren gatza.

Artzaiñak dau artzaiña besarkatzen alai,
bildotsak saltokari diño: «Emen jai!»

Abestiak abesti dau mosutzen samur,
ames laiñoz da oro ibar eta gaillur.

Izadiaren poza zarean Aurtxoa,
irripar bat deskatzut nik bere gozoa.

Aize, ostoa ta mendi baizen gar eztea
bebil guregan beti zure poz aundia.